


Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak urte arteko %3,7ko gehikuntza izan zuen 2005eko hirugarren hiruhilekoan

Tasa hori 25 kideen Europar Batasuneko (%1,6) baino bi portzentaje-puntu handiagoa izan zen

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko BPGdak urte arteko %3,7ko hazkunde erreala izan zuen 2005eko hirugarren hiruhilekoan, 2004ko aldi beraren aldean; hau da, bigarren hiruhilekoko urte arteko tasa baino (%3,5) bi hamarren handiagoa izan zen. Hirugarren hiruhilekoak bigarrenaren aldean izan zuen hiruhilekoen arteko hazkundera %1,4koa izan zen, eta 25 kideen Europar Batasunean %0,6koa.

Euskal AEko BPGdaren urte arteko hazkunde-tasa hori Espainiako ekonomiak lortutakoa (%3,5) baino bi hamarren handiagoa izan zen, eta 25 kideen Europar Batasunerako balioetsitakoa (%1,6) baino bi puntu eta hamarren bat handiagoa. AEBko ekonomiaren urte arteko hazkunde-tasa hamarren bat txikiagokoa izan zen (%3,6) eta Japoniakoak erregistro apalagoa izan zuen (%2,9).

BPGda m/p. Eskaintza. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroko eta egutegiko eragina zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat.

Estatuko datuak, INE. 25 kideko EBren eta AEBren datuak, Eurostat.

Eskaintzaren ikuspegitik, ohiko lau sektore nagusienetatik soilik eraikuntzaren sektorea hazi zen BPGdaren batez bestekotik gora, urte arteko %5,7ko tasarekin; hala ere, tasa hori aurreko hiruhilekoko baina hamarren bat txikiagoa izan zen. Dena den, sektore horren erregistroa aurreko hiruhilekoko baina %1,2 handiagoa izan zen eta bigarren hiruhilekoan izandako hiruhilekoen arteko erregistro bera eduki zuen.

1. taula. BPGda merkatu-preziotan. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak.
Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2003	2004	2004				2005		
			I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	-5,7	16,8	27,9	11,7	20,8	8,7	7,5	7,4	0,3
Industria	1,2	2,5	2,5	2,6	2,7	2,0	1,4	2,3	2,3
Eraikuntza	4,9	5,4	5,8	5,5	5,5	4,7	5,3	5,8	5,7
Zerbitzuak	3,2	3,1	3,1	3,3	3,0	2,9	3,0	3,2	3,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	7,6	4,1	3,6	4,2	3,6	4,9	5,4	5,8	7,9
BPGda merkatuko preziotan	3,1	3,3	3,5	3,5	3,4	3,1	3,0	3,5	3,7

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Eustat.

Industri sektorea, eraikuntzak (%5,7) eta zerbitzuek (%3,3) lortutako urte arteko tasetatik urrun gelditu zen artean, baina bere suspertzea bizkortzen ari dela erakutsi zuen, ondoz ondoko bigarren hiruhilekoan. Bigarren eta hirugarren hiruhilekoko urte arteko tasak %2,3koak izan ziren, baina hiruhilekoen arteko aurrerapenak bizkortzen jarraitu zuen: %1,8koa izan zen bigarren hiruhilekoan eta %2,4raino igo zen hirugarren hiruhilekoan, bigarrenaren aldean.

Merkatuko zerbitzuek %3,6ko urte arteko hazkundea izan zuten; hau da, lehenengo hiruhilekoko (%3,2) eta bigarren hiruhilekoko (%3,5) urte arteko emaitzak gaintitu egin zituzten. Zerbitzuen hiruhilekoen arteko bilakaerak %0,6 egin zuen aurrera hirugarren hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoko (%1,3) baino gutxiago izan bazen ere. **Merkatukoak ez diren zerbitzuek** urte arteko profil neurrizkoagoa izan zuten (%2,0) bigarren eta hirugarren hiruhilekoan, hiruhilekoen artean azelerazioa arina (%0,5) izan zen arren.

Lehenengo sektorean (%+0,3) nekazaritzak eta arrantzak bilakaera ezberdina izan zuten. Nekazaritza %1,3 txikitu zen 2004ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta arrantzak urte arteko %4,6ko hazkundea izan zuen.

Eskariaren ikuspegitik, ekonomiaren urte arteko hazkundeak barne-eskarian oinarritzen jarraitu zuen; izan ere, eskari hori urte arteko %3,5eko tasaraino iritsi zen hirugarren hiruhilekoan eta, kasu honetan, kanpoko sektorearen ekarpen negatiboa txikiagoa izan zen, aurreko urtean baino. Esportazio guztiek urte arteko %2,8ko hazkundea izan zuten eta inportazio guztiek %2,6koa; ondorioz, kanpoko saldo negatiboak urte arteko %5,5eko gutxitzea izan zuen.

Etxeetako kontsumo-gastuak bigarren hiruhilekoko urte arteko bilakaera-tasa bera mantendu zuen (%3,2) eta bi hamarrenetan hobetu zuen hiruhilekoen arteko profila. Kontsumo publikoko gastua, bigarren hiruhilekoan izandako urte arteko %2,7ko tasatik hirugarreneko %1,8kora gutxitu zen. Hiruhilekoen arteko aurrerapenak positiboa izaten jarraitu zuen, baina aurreko hiruhilekoan baino erritmo txikiagoarekin.

**2. taula. BPGda merkatu-preziotan. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak.
Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE**

	2003	2004	2004				2005		
			I	II	III	IV	I	II	III
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	3,7	3,2	3,9	3,2	2,9	2,8	2,9	3,2	3,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	5,8	2,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,6	2,7	1,8
Kapital-eraketa gordina	5,0	4,9	4,7	4,8	5,0	5,1	5,0	5,2	5,1
Barne-eskaria	4,4	3,5	3,9	3,5	3,4	3,3	3,1	3,5	3,5
Guztizko esportazioak	-0,8	8,3	8,7	7,8	9,0	7,6	2,1	1,9	2,8
Guztizko inportazioak	1,2	8,4	9,3	7,7	8,9	7,9	2,1	1,9	2,4
BPGda merkatuko preziotan	3,1	3,3	3,5	3,5	3,4	3,1	3,0	3,5	3,7

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Eustat.

2005eko lehenengo hiru hiruhilekoetan, barne-eskariaren osagairik dinamikoena Kapital Eraketa Gordina (inbertsioa) izan zen. Horren urte arteko hazkundera %5,0koa izan zen lehenengo hiruhilekoan, %5,2koa bigarrenetan eta %5,1koa hirugarrenetan. Aldi guzti horretan, azken kontsumoa baino bi puntu eta bi hamarren gorago egon zen. Gainera, inbertsioek hiruhilekoen arteko profil nabarmen positiboa izan zuten; hirugarren hiruhilekoan erritmoa bizkortu egin zen (hiruhileko arteko %1,3), Eraikuntzak portaera ona izan zuelako eta ekipo-ondasunak eskuratu zirelako.

Enplegatuek bost hamarrenetan gaintitu zuten 2005eko bigarren hiruhilekoko lan-maila eta %2,4ko urte arteko bilakaera izan zuten, 2004ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko hiru **lurralde historikoetako** BPGdaren urte arteko bilakaera honelaxe banatu zen: Arabako eta Bizkaiko BPGda %3,7ko urte arteko tasaraino hazi zen, hau da, Euskal AEko batez bestekoraino; Gipuzkoako BPGda bi hamarren beherago gelditu zen hirugarren hiruhilekoan, %3,5eko tasarekin.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01011 Vitoria-Gasteiz.

Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José M^a Agirre

Tlf:+34-945-01 75 80 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp